



José Valle, La Bañeza. 1969ko maiatza.

Azken Mendeko zapatarien omenez

San Martin Azokak batu zituen. Erakusleihu baten,
18 izen. Elkar lotzen zuten gauza aipagarrienetakoa,
Ermuan zapata-konpontzaileen gremioa osatzearena.

1908an, orain 100 urte jaio zen zaharrena. Etorkizun eroso eta hobe baten ilusioak bultzatu zituen denak, euren jaioterria laga eta Er-mura etortzera. Inguruko herri zein urrunagoetatik, maleta bat eskuan, trenak ekarri zituen León, Zamo-ra, Badajoz eta Ourense al-detik.

Ofizioaren ezaguera gaz-tetatik zeukaten askok; fa-milian zapatariren bat izan ez zuenak, oinetako artean jardundakoa zen: kasu bata edo bestearen adibide dira Bernardo Casado, Bernardi-no eta Antonio Conde, Lino Cid, Pedro Fernández, Paco Valle, José Valle aita eta semea, José Rua, Manuel Fernández, Santi Herrera, Serafín Conde eta José Sio-ta. Aipagarriak Valletarrak (zapatari ibilitakoak aita, bi seme eta lehengosua) eta Bernardo Casado; ho-nek aita, aitxitxa eta bi-rraitxitxa bera ere zapata-gintzan ezagutu zituen "Kolpe-kolpe-kolpeka/ josi eta josi/ josi eta josi... bi zapatak!".

Neurriira egiten

Peoretan, etheen behe-kaldeetan... ahal zen le-kuan eta bonbilla ipurtargi-baten argitasunera hasi zi-ren mailukotsean. Oliva Condek, Justino Perezen



José Rua, Probalekuko bere zapatadendan.

emazteak halan gogoratzen ditu hasierok: "Oinetakoa bezeroen etxeetan batzen genuen; Eibarrera, Elgoiba-rrera eta Ondarrurainok ere joaten ginen, ekarri eta berton konpondu ahal izateko".

Hemen merkatu ona to-patu zuten: bai konpona-rrak egiteko "orduan oine-takoa gaur egun baino gehiago aprobetxatzen ze-lako" Olivaren akorduz, zein berriak egiteko. Arra-zoietako bat Antonio Con-deren berbetan: "Baserri-tarrek, abarka nasaiaak era-maten ohituta, neurriira egindako oinetakoa gura izaten zuten, minik eman

ez eta oina zabal-zabal eramateko. Gure aitak za-balera bereziko oinetakoak egiten zizkien juanikoteak, hankazpietako babak edo altuera desberdinetako hankak zirela eta, zapatak janzteko zailtasunak zituz-ten bezeroei". Honen hari-ra, Pedro Fernándezen esa-nak: "Esku hauek zapata mota guztiak egindakoak dira!".

Oinetako bakoltzeko zeregin bat

Ikusi ditugu pintzelakin tindagaia edo kola kurioso-kurioso zabaltzen, zapata berean kola mota bi erabil-tzen, iltzeak takoiaren puntu estratejikoan mili-metrikoki mailukatzen, jos-teko haria argizari eta pez mineralarekin prestatzen... eskuetako lana, artesanía hutsa! Dena den, eginbeha-rreko errentagarriena kola zabaltzearena omen zen,

Lino Cid-ek argitzen digun legez: "Josteak hain era-maten zuen denpora asko, dirua galtzen zela! Bezero-ari ezin zenion iruzurrik egin eta konponarrok egi-ten emandako denbora kontutan hartu ezkeru, gehiago balio zezakeen ko-bratzen zenuenak oineta-koak berak baino!".

Soldata osagarri

Lanbide edo ofizio bezala sentitze kontuei errepara-tzen hasita, ofizioan diru-irabazi soilak izateak baino barruko harra batek agin-tzen duela erakutsi digute. Beste nonbaiten lanean egon arren, ezin zapatekiko lotura apurtu. Halan eka-rtzen du Belen Melerok, Paco Valleren emazteak gogora: "Nire senarrak tailarrean amaitzen zuenean, zapata-dendara joaten zen lagun-tzera. Harekin extra txiki bat ateratzen zuen, bere

**"Gehiago balio zezakeen
ko-bratzen zenuenak,
oinetakoak berak baino!"**

ILEAPAINDEGIA
Iraskun
Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ernuva Bizkaia
Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

Solozabal
estankoa

torrekua z/g
Tel/Faxa. 943 17 07 33
fax publikoa

PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

gauzatxoak erosi eta gure alabei domeketan paga pixkat eman ahal izateko”.

Bernardo Casadok gogoratzen duenez: “Materiale asko Galiziatik ekartzen zen; bertan narrua ontzeko enkurtido lantegi asko zeuden eta betidanik oinetako asko egin izan da”. Eta honen gehigarri, José Siotaren hausnarketa: “Hemen burdina lantzen zen bezala, han animalia asko egoteran, narruarekin egiten zen lan asko. Allarizen, gure familia narrua ontzeko lantegi txiki baten jabea zen. Bertan beharrean nengoela, narruaren langaia garestituz eta irabaziak urrituz zihozela ikusita, herritik alde egiteko premian topatu nintzen”.

Andrak lagun

Bakarkako lana zen, baina ez zeuden bakarrik.

Emazte edo kasu batzutan alaben esku zeuden dendako salmenta eta konponketaren zeregin batzuk: bezeroak atenditzeaz gain, zolei kola eman, poltsak makinan josi, tindatu, betuna zabaldu, azken ukitua eman, paperean batu edota kobratzeaz arduratzen ziren. Mostradore ostean ezagutu ditugu Oliva Conde, Otilia Losada, M^a Carmen Cid, Flora Aldekoa, Florita Gorritxategi, Dina Vidal, Orentina Sánchez, Celsa Rodríguez, Pepi Rúa, M^a Luisa Seara, Cheli González...

Semeak ere inguruan: “Gaztetan, deabrukeriaren bat egiten nuenean banekeen zigorra zein zen: zapatatendara, oinetakoak jostera! Baina lehengo erara, josiz eta ez gaur egunean egiten dugun bezala, kola

“Deabrukeriaren bat egiten nuenean zapatatendara, oinetakoak jostera!”

emanez! Eguraldi eskasarekin, non sartu ez zegoela eta dendara joaten nintzen nire burua entretenitzera” irribarretsu dakar gogora Antonio Condek.

18 biografia, 18 zerkontatu. Ofizio hau bizi izan duenak, nostalgiaz begiratzen dio; joan zirenen senideek, harrotasunez daukate zapata-konpontzaile baten ondorengo izatearena eta mailukotsean jarraitzen dutenek... “haria/ hartu argizaria/orratza, zast!/ korapiloa”... lagatzeko uste gutxikin!

Estibalitz González

ERMUAN ZAPATARI

Celso Alonso Minguéz

Paradiñas- Allariz

(Ourense), 1928.

Bernardo Casado Fraile

Morales del Rey (Zamora), 1942.

Lino Cid Suárez

Coira (Ourense), 1926.

Serafin Conde García

Marcelle (Ourense), 1933.

Bernardino Conde

Gavilanes

Junquera de Ambia

(Ourense), 1931.

Antonio Conde Sánchez

Coira (Ourense), 1954.

Benito Domínguez Pacheco

Allariz (Ourense), 1930.

Pedro Fernández Ferrero

La Bañeza (León), 1926.

Manuel Fernández Perea

Eibar (Gipuzkoa), 1959.

Leandro Gorritxategi

Ariznabarreta

Berriz (Bizkaia), 1908.

Santi Herrera Herrera

Mérida (Badajoz), 1954.

José Pagaldai

Arruabarrena

Mallabia (Bizkaia), 1931.

Justino Pérez Gómez

Parada de Asadur

(Ourense), 1922.

José Rúa Fernández

Gundiás (Ourense), 1929.

José Siota Nieto

Allariz-Meire (Ourense),

1926.

José Valle Macías

La Bañeza (León), 1912.

José Valle Ferreras

La Bañeza (León), 1937.

Paco Valle Ferreras

La Bañeza (León), 1944.



Justino-Oliva
zapatatendaren
inaugurazioa. 1982.

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

komunitateak
aseguruak

San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak, telebistak,
bideoak, musika,
aparatoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA